

BETIRAKO,


**guuk.**  
 ZUNTZA MUGIKORRA TB

[HERNANI](#)

Presoak

# Marta Igarriz aske utzi dute, 15 urte espetxean egin ondoren

Kronika - Erredakzioa 2020-09-29 12:38



Marta Igarriz preso senide eta lagunekin, Logroñoeko espetxe atarian. Argazkia: Etxerat

Etxerat-ek jakinarazi duenez, Marta Igarriz Izeta euskal preso hernaniarra aske geratu da.

Hamabost urte kartzelean egin ondoren, Logroñoeko espetxetik irten da goizean, eta harrera egin diote senide eta lagunak espetxe atarian.

2005 urtean atxilotu zuten hernaniarra, ETAko laguntzailezat jota, eta hamabost urteko espetxe zigorra ezarri zioten. 2018an bigarren gradua eman zioten eta irailean, Kataluniako Castelloko espetxean 11 urte egin ostean, Logroñoeko kartzelera mugitu zuten. Katalunian egon zen denbora horretan, bere ahizpetako batek, izebak eta amak istripu larria izan zuten, 2017an. Igarrizen amak saihests-hezurak eta zerbikaletako orno bat hautsi zituen, eta beste bi zapalduta geratu zitzaizkion. Izebak bulaerrezurra hautsi zuen eta ahizpak, hainbat kolpe gogor jaso zituen.

Bigarren gradua jaso eta urtebete beranduago, 2019an, egun baterako ateratzeko baimena eman zioten. Hain justu, aukera hori Madrilek EPPk-ko kideei emandako lehena izan zen.

[Gizartea Hernani](#)
[Erantzun](#)